




## **ESKOLAKO OHARRAK**

### **ZORRIAK**

Zorriak azaldu dira berriz eskolan. Hemen transmititzen dira ikasleak elkarrekin daudelako. Jakina da, zorriak edukiz gero zein den jarraitu beharreko tratamendua. Guraso batzuen aldetik kexa azaldu da. Alegia, beren seme-alabei tratamenduak egin arren, behin eta berriro azaltzen direlako. Askotan aztertu dugun gaia da eta eskolak tratamendua egiteko aholkua eman besterik ezin du egin. Mesedez, ongi begiratu zuen seme-alaben buruak zorriak desagertarazteko.



### **ORDUTEGIA**

Dakizuen bezala, COVID19ak egoera oso bereziak sortarazi ditu. Egoera hauei ahalik eta irtenbiderik egokienak aurkitzen saiatu gara; horietako bat, ikasleak, eguraldiak ahalbideratzen duenetan behintzat, eskola eraikinetik ateratzea da. Askotan, arratsaldeko saioak aprobetxatzen saiatzen gara eta eskolako patioan ekintza ezberdinak egiten ditugu 16:15ak arte. Hainbatetan, gurasoak, arratsaldeko 16:00etarako eskola eremuan sartzen dira. Honek ikasleak urduritu eta eskolako ohiko funtzionamendua zailtzen du. Hori dela eta, 16:15etatik aurrera sartzea eskatzen dizuegu. Eskerrik asko

### **PLASTIKORIK GABEKO ASTEA**

Gure eskola, elkarbizitza eta ekologiaren inguruan egiten dugun lanagatik, eskola jasangarria da. Ildo honetan, datorren azaroak 21etik azaroak 29ra egingo den Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen parte hartuko dugu. ikus dezakezuen mapan gure eskola agertzen da: <https://ewwr.eu/actions/colégio-sin-plasticos-13/>. Ondorengo loturan Hemendik ahalik eta plastikorik gutxien erabiltzera gonbidatzen zaituztegu. Eskerrik asko.



### **EUSKARALDIA**

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra Euskaraldiaren bigarren edizioa izango da. Milaka belarriprest eta ahobizik, 15 egunez, eguneroko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala egingo dugu. Zeuk ere euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egin nahi baduzu, 16 urte edo gehiago badituzu, eta euskara ulertzen baduzu, eman ezazu izena <http://izenematea.euskaraldia.eus/helbidean>. Animatu zaitetzte!!!

Bestalde, Oiartzungo euskaraldiko batzordetik beste erronka bat proposatu nahi dizuegu, HIKALDIA. Parte hartzen duenak "H" bat gehituko dio bere txapari eta "hikaz" aritzeko gogoia adieraziko du. Berdin da ahobizi edo belarriprest izan. Hika entzuteko edota hitz egiteko gogoia badun/k animatu hadi!! Informazio gehiago nahi baduzue idatzi [oiartzun@euskaraldia.eushelbidera](mailto:oiartzun@euskaraldia.eushelbidera).

### **ESKOLAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA**

Azken asteetan jakinarazi dizuegun bezala, eskolako familia guztiek helbide elektronikoko korporatibo propioa duzue. Ikasturte honetan, hiruhilabeteko buletinak, modu digitalean bidaliko dizkizuegu aipaturiko helbide elektronikora. Hori dela eta, ahalik eta azkarren aktibatzea beharrezkoa da. Zailtasunak izango bazenituzte jarri harremanetan zuen seme-alaben tutoreekin edo eta eskolako zuzendaritzarekin.



### **GARRAIO ZERBITZUA**

Gure eskolako 6303 autobusean aldaketa txiki bat egin dugu. Udalak, markesina berria jarri du Ergoien auzoan. Hori dela eta, ikasle batzuk bertan hartuko dute eskolara joateko autobusa. Gure eskolako web orrian, garraio atalean, moldaketak txertatu ditugu.



### **GURASO ELKARTEAREN OHARRAK**

Bizi dugun egoera dela eta, aurten 29 urtetan lehenengo aldiz ezin izan dugu Euskal Eskola Publikoaren Jaia Euskal Herriko txoko batean ospatu. Dena den eskola publikoaren aldeko material salmenta on line eskuragarri daukazuela gogorarazi nahi dizuegu.

Abenduaren 15a baino lehenago Jaiaren webgunean egiten diren eskariek doako bidalketa gastuak izango dituzte. Katalogoan salgai dauden produktu guztiak aurkituko dituzue, baita bakoitzaren ezaugarriak eta neurriak ere. Hazitik gora! katalogoa. Informazio gehiago: [www.euskaleskolapublikoarenjiaia.eus/es/tienda-online](http://www.euskaleskolapublikoarenjiaia.eus/es/tienda-online). Edozein duda izanez gero idatzi: [jiaia@ehige.eus.0](mailto:jiaia@ehige.eus.0).



Gabon hauetan  
oparitu Hazitik  
Gora materiala!

Doako  
bidalketa  
abenduaren  
15era arte

### **ABARAXKA LUDOTEKAKO OHARRAK**

“OIARTZUNGO IHOTIK” KARTA JOLASA

“Oiantzungo ihotik” karta jolasak bizitza hartu du!

Intxixuak, basandreak, sorginak, ote-gizona, zomorrozinko, suzko akerra, sua, kuestaziyua, auzoak.... batu ditugu karta jolas batean. Abaraxka Udal Ludotekak ihoteen karta jolasa sortu du. Diseinua Dixidu grafikoak egin du eta ilustrazioak losu Mitxelena Unsainek. Karta jolas hau ez da jolasa soilik. Ilusio, mimo eta maitasunez sortu eta landutako baliabide ederra da. Baliabide diogu, gure herriko ohiturak eta kultura, jolasean, era kolektiboan, euskaraz, hezkidetzan... jaso eta transmititzeko modua delako. Materiala kutxatxo eder baten barruan dator: karta hauekin nola jolastu, ihoteen historia eta hauen berri ematen duen liburuxka bat du eta 56 karta erakargarri. Karta jolas honekin hain maite ditugun ihotik urte osoan etxean izango ditugu. Jolasa eta kultura bat eginik... jolastuz ikasi! Oiantzuarren etxe guztietan egon beharreko jolasa!!

PREZIOA: 15 €


SALMENTA PUNTUAK:

- Abaraxka Ludoteka
- Dixidu diseinu grafikoa
- Elizalde Herri Eskola (diru justua ekarria behar da)
- Hautzaro Ikastola
- Ehuntze espazioa
- Intxixu AEK euskaltegia
- Labore Oarso
- Oiartzun Irratia
- Txispum aretoa (Hondarribia)

Abaraxka udal ludotekari buruz gehiago jakiteko: [www.gazteoiartzun.net](http://www.gazteoiartzun.net)

Ihotei buruz gehiago jakiteko: [www.oiartzungoihotik.eus/](http://www.oiartzungoihotik.eus/)

Harremanetarako: [abaraxka.oiartzun@gmail.com](mailto:abaraxka.oiartzun@gmail.com)



## SALMENTA PUNTUAK

- Abaraxka Ludoteka
- Dixidu diseinu grafikoa
- Elizalde Herri Eskola
- Hautzaro Ikastola
- Intxixu AEK euskaltegia
- Labore Oarso
- Oiartzun Irratia
- Ehuntze espazioa
- Txispum aretoa (Hondarribia)

Harremanetarako: [abaraxka.oiartzun@gmail.com](mailto:abaraxka.oiartzun@gmail.com)



15 €

Intxixuak, basandreak, sorginak, ote-gizona, zomorrozinko, suzko akerra, sua, kuestaziyua, auzoak.... batu ditugu karta jolas batean.

Kutxa eder batean aurkeztuta, liburuxka + 56 kartak osatzen dute jolas hau.

**Oiartzuarren etxe guztietan egon beharreko jolasa!!**



## **UDALEKO OHARRA**

### **XXXIII. Xabier Lete Prosa eta Poesia Lehiaketa**

#### **SARI BANAKETA**

Abenduaren 4an izango da XXXIII Xabier Lete Prosa eta Poesia Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia. Une honetan bizi dugun egoera bereziak neurri bereziak hartzera behartu gaitu eta aurten ezinezkoa izango zaigu ekitaldi jendetsua egitea.

Ekitaldia Done Eztebe ELIZAN egingo dugu arratsaldeko 5etan eta ezingo da sartu gonbidapenik gabe. Saritu bakoitzak gonbidatu bat edo bi eraman ahal izango du (uneko aforoaren baitan). Ikastetxeen bidez jakinaraziko diogu saritu bakoitzari zenbat lagun eraman ditzakeen. Hauetaz gain, gonbidapena jasoko dute epaimahaikideek, prentsak eta ekitaldian parte hartuko duten pertsonak.

Ekitaldia bideo eta argazkien bidez jasoko dugu guztiok izan dezagun ekitaldiaz nolabait gozatzeko aukera (sare sozialen bidez, ikastetxeetako webguneen bidez...).

Etorritakoen artean zozketatzen ditugun idazle eta ilustratzaile oiartzuarren liburuak berriz, ikastetxeen bidez zozketatuko ditugu ikasle guztien artean.

Mila esker eta zorionak lehiaketan parte hartu duzuen ikasle guztiei.

#### **Mugikortasuna**

Udalak, gure mugikortasun ohiturak ezagutu nahi ditu. Momentu hauetan, mugikortasuna plana osatzen ari dira eta hobetzeko aukerak zeintzuk diren gertutik ezagutu nahi ditu. Horretarako, hemen duzue interneteko lotura: <https://es.surveymonkey.com/r/WX3JFP5>

Parte hartzeagatik bakarrik, bizikleta baten zozketan parte hartuko duzue. Animatu



